



EG GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



**sei buru
eta txapela bakarra**



Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

Aureli Argemi:
Europako Hizkuntz
Minorizatuen
Bulegoko kide

6. orrialdea



Euskaraz bizi
udalekuetan Zuaza
eta Barria

10. orrialdea



Arabako kirola
aztergai

inkestak, kultura, gizartea,
haurrekin solasean,
denborapasak,

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

S.O.S. Herriak

DUELA 2.000 URTE inguru sortu ziren Gesaltzako gatzagak. Hortik dator gure herriaren izena, Gesaltza. Garai hartan, gure herriko lur zati batek beherantz egin zuen, eta, horren ondorioz, Arabako gatz-iturbururik handiena agerian geratu zen. Gatz ekoizteko izugarriko azpiegitura eratu zen. Oparotasun horretatik ezer gutxi du Gesaltzak gaur egun.

Gatz betidanik oso preziatua izan da, funtsezkoa baita gizakion elikaduran. Produktu hori oso goresia zen, elikagaiak kontserbatzeko oso baliagarria zelako. Bestalde, gatzagak ustiatzeko eskubidea enperadoreek, errege-erreginek, kondeek eta jauntxoek baino ez ohi zuten izan; beren pribilegioetarikoa bat zen. Gerora, Elizak hartu zuen bere gain gatzokien ardura. "Urre zuria"-ren prezioak behea jo zuenean, gesaltzatarrek eskuratu zituzten gatzagak.

Gesaltzako "bailara gazia"-ri ez zaio aspaldian beste arreta eskaintzen. Batetik, gatzagak "monumentu historiko-artistiko" izendatu dituzte. Bestetik, ordea, instituzioek ez dute konpondu gatzokien egoera gero eta txarragoa. Izan ere, gatzokien jabe askok bertan behera utzi dituzte beren esplotazioak, diru-iturri errentagarriago baten bila abiatuak. Hori dela eta, gatzagak oso egoera penagarrian daude gaur egun.

Hirurogeiko hamarkadan bailara osoak ihardunean ziharduen eta gatzokien iraupena ez zen zalantzan jartzen. Orduan genuen Gesaltzan munduko monumentu historiko-artistiko bizidunik handiena. Gaur egun, ordea, gatzagen egoera penagarria da. Argi dago, bestalde, gatzagak kontserbatzeko bide bakarra gatzagak berak ustiatzea dela. Gesaltzan 6.000 gatzaga daude; 1994an 400 baino ez zeuden martxan.

Egoeraren larritasunaz jabetuta, eta agintariak ezentzunarena egiten dutela sinetsirik, gesaltzatarrek neurri batzuk hartu dituzte gatzagak kontserbatzeko. 1988an dei egin zitzaion Arabako Foru Aldundiko diputatu guztiei gure bailararen arazoari buruz hitz egiteko. Biltzar Nagusietako talde guztiek baiezkua emanda, beren ordezkariak bildu ginen. Hau erabaki genuen denok, aho batez, gainera: edozein ekimen errentagarri bultzatu behar zela, bailararen iharduera ekonomikoa konpontzeko.

Kultur elkarteak, Gesaltzako jabeen elkarteak eta Gesaltzako kooperatiba ekimen errentagarriak bilatzeko konpromezua bere eginez, aurreproiektu bat egiteko diru-iturriak bilatzen hasi ziren. Aurreproiektua 1989an eginik, eta



beharrezko bideragarritasun ekonomikoa eskaintzen zuela ikusirik, Arabako Foru Aldundian aurkeztu zen. Aurreproiektu hura ez zen onetsi. Halere, haren bultzatzaileak etsi barik, azterlan ekonomiko bat egin zuten. Horren arabera, bideragarritasuna ezin zen zalantzan jarri. Gure eskualdeko bizilaguntzat proiektua lan-iturri emankorra izan zitekeela zioen.

Ahaleginak ahalegin, Arabako Foru Aldundiak oraindik ez digu erantzunik eman. Horrek, nire ustez, agerian uzten du zer nolako axola dioten instituzio horri Gesaltzakoek eta, hedaduraz, Arabako gainerako herrietakoek. Ernegarria da herri ekimenak zein babes gutxi jasotzen duen pentsatzea; are ernegarriagoa azterlan berak askoz arrakasta handiagoa lortuko zukeela jakitea, enpresari batek aurkeztu izan balu.

Horiek horrela, argi dago zer nolako garrantzia ematen dioten Arabako herriei gure politikariak. Arabako herriek interes elektoralista eta koiunturala besterik ez dute pizten gure politikariengan. Gesaltza interes horietatik kanpo omen dago; etorkizuna Gesaltzara dator hau besapean dakarrela: eskasia ekonomia, despoblazioa eta "hondamendi monumentala".

Bukatzeko, eskaera bat: Arabako herrietakoek iritzia ere lekurik izatea GEU GASTEIZ aldizkarian.

Raúl García Linares

GESALTZAKO TALDEA IZENEN KULTUR
ELKARTEKO ORDEZKARIA

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

Pedro Asua, 2 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Zuzendaria: Karlos Etxenautia **Erredakzio-burua:** Ismael Diaz de Mendibil **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo, Xabier Zabaleta **Hizkuntz arduraduna:** Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo Sarasola **Marrakziak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:** Alex Badillo, Asier Perez de Karkamo **Publizitatea:** Karlos Fdez. de Betoño **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Asier Perez de Karkamo, Lorea Zurimendi **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika, Xabier Etxaniz, JuanJose Kastresana, Iñaki Gauna, Txabi Arnal Gil, Mikel Garmendia **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati) **GEU GASTEIZek** ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik

GEU GASTEIZ aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

KALEA: _____

Kode Postala: _____

HERRIA: _____

Pisua: _____

ZKIA: _____

Kalea mintzo Amaren egunaz

MAIATZAREN 7AN, hau da, hilaren lehenengo igandean, Amaren eguna ospatu da aurtten. Batzuek buruan izango dute jada zer erosi amari; beste batzuek, alferkeriaz edo, azken egunerako utziko dute; gero eta lagun gehiagok, ordea, ospakizun horri gero eta zentzu gutxiago ikusten diote, horren atzean kontsumoa areagotzeko asmo baldarra besterik ez delakoan.



NEREA BARBER

ikaslea



1. Nola ospatzen duzu Amaren eguna?

2. Zentzu komertzialegia ote du ospakizun honek?

1. Ni ez nago ados Amaren eguna ospatzearekin.

2. Bai, noski, kontsumorako eguna besterik ez dela iruditzen zait.

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu

47 erakundek eta 10.000tik gora irakurlek honela adieraziko dugu

BADA GARAIA GUREKIN EUSKARAZ

kanpaina martxan dugu. 47 erakundek merezi moduko erantzuna eman dute, alajaina!. Irakurleen artean 50.000 eransgailu banatu genituen. Idatzizko harremanak euskaraz eskatzeko asmoak, beraz, aurrera darrai.

ALDERDI POLITIKOAK

sartu dira kanpaina. Hauteskunde garaia zergatik ez bueltatu erdara hutsezko propaganda guztia?

Tentazio hori dutenentzat, hona hemen bada ez bada ere, bere helbideak. Gogoratu eransgailu gehiago dagoela. Deitu 222153 telefonora

Lortuko al dugu? Ikasiko al dute?

EA
San Prudentzio, 3
01005 GASTEIZ

EAJ-PNV
Abendaño, 26
01008 GASTEIZ

HB
Ramiro Maeztu, 6
01008 GASTEIZ

PSOE-EE
Arca 11
01005 GASTEIZ

UA
San Antonio, 27
01005 GASTEIZ

ZUTIK
Kutxileria 71 2a
01001 GASTEIZ

IU
Diputazioa, 11
01001 GASTEIZ

PP
San Antonio 1 -1a
01005 GASTEIZ

Armentia • Banbi • Umandi • Toki Eder • Adurtza • Abetxuko • Arantzabela • Barrutia • Olabide • Ikasbidea • Abendaño • Odon de Apraiz • Angel Ganibet • Koldo Mitxelena • Izarra • Rogelia de Alvaro • Jesus Obrero • Diocesanias-NievesCano, Mendizorrotza, Diocesanias-Molinuevo, Los Herran, Ramiro Maeztu, Francisco de Vitoria, Federico Baraibar, Unamuno, Mendizabala, Lopez de Gereñuko euskara mintegiak • Irakasle eta Ingenieritza Unibertsitate Eskoletako euskara batzordeak • AEK, IKA, Hegoalde, Udaberria eta IRALE euskaltegiak • Bagare • Euskal Herrian Euskaraz • Gasteizko Bertsolari Eskola • GEU elkarteak • Geu Gasteiz aldizkaria • Arabako Esperanto Elkarteak • EAJ • EA • HB • Zutik • ELA • LAB • ESK • STEE-EILAS

GUREKIN EUSKARAZ

HONAKOOK SINATU DUGU HITZARMENA



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

ARTE GALERIA

LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea, 7
Tfnoa: (945) 146261 • Fax: (945) 143509
01001 GASTEIZ



AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ



MARIO QUERO
komertziala

1. Opariren bat ematen diot amari, ez besterik. Ez dugu ospakizun gehiagorik egiten.

2. Jakina, nire ustez, guztiz manipulaturik dago, nahiz eta egunik komertzialena ez izan. San Balentin eguna bai egun kontsumorakoa!



MARTA BEZARES
ikaslea

1. Etxean gauza bakarra egiten dugu egun horretan: oparia eman. Horrekin aski izaten da.

2. Horrelako eguna, hau da, San Balentinena, Aitarena etab. kontsumitzeko besterik ez dira, nire ustez.



MARIO GALERON
ikaslea

1. Denetatik egiten dugu etxean. Jaieguna bailitzan ospatzen da: bazkari ona, opari batzuk eta familiarekin egon.

2. Uste dut egun hori dirua irabazteko asmatu dutela. Amaren eguna edozein egunetan ospatu ahal da.



IÑAKI PZ URRUTIA
topografoa

1. Gure etxean ez dugu ospatzen ez Amaren eguna ez eta Aitarena ere.

2. Kontsumoak asmatutako eguna iruditzen zait. Hortaz, hobe da edozein egunetan zerbait ospatzea.



IDOIA RAMOS
psikologoa

1. Egun horrek ez du ezer berezirik, egun arrunta da. Amari musu bat ematea da ospatzeko modurik hoberena.

2. Edonoiz ospatu beharko litzateke Amaren eguna, ez bakarrik dendek eta bestek agintzen dutenean.

ALAVA
ARABA

VITORIA
GASTEIZ

para unir
elkartzeko

en el corazón
bihotzean

EMAN BOTUA



VOTA

ELEBITASUNA HIZKUNTZA BOTERETSUENAREN INPOSAKETA DA

Aureli Argemi

ESTATU ESPAINIARRAK EUROPAKO HIZKUNTZ MINORIZATUEN BULEGOAN DUEN ORDEZKARIA

Europa erraldoi beldurgarriak lekutxo bat uzten die estaturik gabeko herrialdeen hizkuntzei: Hizkuntza Minorizatuena Bulegoa. Bertan dugu Aureli Argemi kataluniarra Estatu espainiarreko ordezkari. Inork gutxi daki berak beste hizkuntza minorizatuak. Gasteizen gure artean oraintsu izan denez, solasalditxo bat egin dugu berarekin. Guk, tentaldiari ezin eutsirik, euskarak Araban bizi duen egoerari buruz galde egin diogu.



ELEBITASUNA INPOSAKETATZAT JOTZEN DUZU. ZER DELA ETA?

Euskara inferioritate edo gutxiagotasun egoeran bizi da. Horrek agerian uzten du elebitasuna ezin daitekeela helburua izan, bitarteko hizkuntz egoera bat baizik. Estatuaren hizkuntza da indartsuena, eta Estatuak baliabide guztiak ditu egoerak bere horretan jarrai dezan lurralde osoan. Hori horrela, gainerako hizkuntzak traba baino ez dira Estatuarentzat. Elebitasunak, beraz, hizkuntza indartsu baten iraupena bermatzen du gainerako hizkuntzak desagertarazi gabe, baina beren izatea bera kinka larrian jarriz. Elebitasuna beti erabat desproporzionala izaten da. Elebitasuna soilik bi giza-talderentzat da baliagarri: batetik, Estatuaren hizkuntza baino ez dakitenentzat, eta bestetik, bigarren hizkuntza bat ezagutu nahi dutenentzat.

BATZUEK DIOTE ELEBITASUNA TOLERANTZIAREN ADIERAZLEA DELA. ADOS AL ZAUDE HORREKIN?

Gainetik ikusita, euskaldunok eta kataluniarrok bi hizkuntza erabiltzen ditugunez, gaztelauak baino toleranteagoak gara. Baina hori egia litzateke baldin eta euskaldun guztiok euskara menderatuko balute eta gaztelera bi hizkuntzen arteko aukera bat baino ez balitz. Euskal Herrian

“Elebitasuna ezin da helburua izan, bitarteko hizkuntz egoera baizik”



axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

eta Katalunian ko-munikabideak, zeinak gizartearen ispilu diren, erdarazkoak dira gehienik.

ARABAKO ERDILDUN BATZUK HIZKUNTZ BIKTIMA GISA AGERTU DIRA AZKEN BOLADA HONETAN. ZER DERITZOZU HORRI?

Ni beste lurralde batera joaten banaiz, bertako hizkuntza ikasten dut ezer baino lehen, diskriminatuta ez egotearen, hain zuzen ere. Baina, lurraldea zehatz-mehatz definitu ezean, esaterako, Estatu espainiarraren kasuan, galderan aipatu duzun gatazka gertatzen da. Hau Espainia dela uste duenak zera pentsatu ohi du: eukarak bera marjinatzen duela. Gaztelau bat Frantziara joaten bada, frantsesa ikasten du. Euskal Herrira etortzen bada, aldiz, ez du euskara ikasten, Espainian dagoela uste duelako.

ZER DA LEHENENGO: ESTATU BILAKATZEA ALA HIZKUNTZA ERABAT NORMALIZATZEA?

“Lurralde” hitza garrantzitsuagoa da “estatu” hitza baino. Belgikan adibide argia dugu. Izan ere, bertako bi hizkuntzak erabat garatu dira, Belgikak bi lurraldeak erabat zehaztu dituelako, batetik, flandriarrena (holandesa) eta



“Gure kasuan, hizkuntz politika beti izango da bi hizkuntzetako baten aldekoa eta bestearen kontrakoa”

bestetik, walloniarrena (frantsesa). Gure kasuan, aldiz, Estatuak ez du onartzen definizio hori, ez du plurinazionalitatearen fenomeno onartzen.


BETI ESAN DUZU HIZKUNTZA HERRI BATEN DEFINIZIOAREN EZAUGARRIETARIKO BAT DELA.

Bai, hizkuntzak ezberdin egiten gaitu gizakiok elkarren artean. Oso fenomeno garrantzitsua da, gainera. Horrexegatik, beti egongo da politikaren menpe. Gure kasuan, hizkuntz politika beti izango da bi hizkuntzetako baten aldekoa edo bestearen kontrakoa. Eta hizkuntz politika neutrala itxuraz baino ez bada, hizkuntza indartsuaren aldekoa izango da.

ZEIN LEKU BETETZEN DU HIZKUNTZAK BESTE HELBURU BATZUK LORTZEKO BIDEAN?

Hizkuntza loturik dago identifikazioarekin, eta identifikazioa gainerako eskubideen garapenarekin. Herri bat bere autodeterminazioaren aldekoa dela frogatzen duten elementuetariko bat haxe da: bere hizkuntza berreskuratzeko ahaleginetan ari dela.

Asier Perez de Karkam




kide
APAINDURA
Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

JENNY
PRIETONolako idazkera,
halako izaera

BERE IZENAK ezer gutxi esaten badigu, bere ahotsa, ordea, gure txikientzat, ezagun baino ezagunagoa izango zai. Bera da, izan ere, Maritxu Berritsu

Hau izan da berria
bete eta esan
eta bere irudimen
ipuin paktuak...
(Jokatu oraindik)
idazlea

Jenny Prieto
55-7-29



GURE AURREAN daukagun emakumea kontzientzia pertsonal handiko pertsona dugu, burua tente eramaten ondo dakiena. Horrekin batera ezin dugu utzi aipatu gabe Jeniren nortasunari ezin bestekoa zaion beste ezaugarri bat, hau da, askatasunarekiko maitasuna. Emakume librea izan nahi du gauza guztien gainetik. Hori dela eta, gauza izan da bizitzan bere buruaren askatasuna bermatzen duen posizioa eta lanbide egokia lortzeko. Izan ere, lanak aukera eman dio kolektibitatek nabarmentzeko edo bere jatorrizko girotik dezente gorago igotzeko.

Asko eskatzen dio bere buruari eta ez da geratzen helburua lortu arte. Aurrera egiten duenean zuzen eta artez jotzen du bere indar guztiekin helburu bila eta hortaz fruitu onak ateratzen ditu. Dena den, grina horretan batzuetan aldamenean zer dagoen ahazten du. Alde horretatik ulertu beharrekoa dauka munduan berekin batera kontutan hartu beharreko milaka miloi lagun bizi direla. Bestela pentsa lezake bere interesak eta besteenak berdinak direla eta ez da zertan horrela izan. Jeni ideal handiko pertsona dugu, eta jo eta ke borrokatzen du horien atzetik. Helburua ezin da aitzaki izan aldamenean ez begiratzeko. Hipokrita ez izatea oso gauza onda da, baina bestaldetik ere diplomaziaz, tentuz eta arretaz jokatzeko jakitea ere garrantzitsua da. Ez da komeni printzipioekin absolutista izatea. Hori ulertzen duen neurrian oso pertsona estimagarria eta baliagarria da gizartearentzat

Problemak agertzen zaizkionean (batzuetan berak sortu ere sortzen ditu) ezin

ditu bazter batean utzi. Jakitun da problemak hor daudela, eta, beraz, aurre egin behar die. Halere, txuri-beltzean ikusteko joera daukanez, lan eginda ere ez dauka horrela arazoak konpontzerik. Zuri eta beltzez gain beste kolore batzuk ere badirela ulertzen duenean problemen erlatibotasunaz ohartu eta gainditu egiten ditu.

Harremanen munduan problematxoak izan ditzake: ez da erraza berarentzat bere barrutik ateratzea eta besteei buruz duen iritziak okerrak izan daitezke, irizpide eta arau berak erabiltzen baititu bere buruarekin eta besteekin. Horrek ez du esan nahi harremanak izateko gai ez denik, baina harreman sakonen beldur izan daiteke bere "nitasuna" arriskuan jar dezaketene neurrian, eta horregatik barnekoia dela esan genezake

Hemendik irailera bitartean onerako aldaketak antzematen dira lanbidearen arloan, nahiz eta hasiera batean bere gustukoak ez izan. Aldi berean, kontuz ibili behar du famili giroan atsekabeak baztertzeko.

Iñaki Gauna



arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

 **Ederki**

argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideoa industria
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

HAU MARTXOAREN MARTXA!

BAI JAUN ANDEROK, gasteiztarrak martxosoak direla ukatzerik ez dago. Errua norena den...? beharbada udaberriaren hurbiltasunean bilatu beharko genuke... ez dakit. Esaera zaharrak halaxe dio: "Martizozoak mokoan janari, kabi beroan kumeak kantari". Gasteizen ordea, "jendea berotu eta euskal kultura harrotu".

Hasteko, lehen urratsak, Zaramaga auzoan kokaturik den Odon de Apraiz Ikastolak eman zizkigun. Odon de Apraiz euskaltzale handi eta idazle nekaezina hil zela hamargarren urtea betetzen zela eta bere izena daraman Ikastolak beste hainbeste bere sorreratik, bi ospakizunak aitzakiatzat harturik, hilaren hogeian abiatu eta aste osoan zehar egitarau mamitsu eta zabala antolatu ziguten: mahai-inguruak, hitzaldiak, umeentzako ekintza ezberdinak... jaialdi oparo eta bertso-saio bikain batekin bukatzeko. Zorionak ematea hutsa litzateke, nahiz eta ongi egon, eredu bezala hartu eta ugaritu beharra baitago honako ekintzak.

Baina oraindik emaitza hauen aztarnak gozatzen ari ginela, hara hor igandea 26, non itsutzen gaituen "KORRIKA 9.aren" etorrerak. Nolako eguna! Eguraldiak berak ere ongi etorri gozo eta beroa eskaini zion... Uholdea zirudien leku-koaren atzetik zetorren jendetza izugarriak. Andra Mari Zuriaren plazara iristean ordea, bihotza ere erdi korapilatua geneukan. Hura giroa! Hungigarria benetan. Zeledon bera ere, San Migel elizako dorretik begira eta inbidiatan ez ote zegoen nago.



Baina hara hemen, guzti honen erresaka arindu asmoz edo, Arabako Bertsolari Elkartearen eskutik eta Udalaren laguntzaz, hogeitazazpitik hogeita hamaikara, Bertso Astea non iragartzen diguten. Gehiegi...! Mahai inguruak, bertso zahar eta berriekin kantaldiak, bertso-lari gazteen saioa eta beste abar luze bat Villa Suso Jauregian, bertso afari "porno" alai batekin bukatzeko.

Beraz, hilabete honen hasieran Euskal kulturaren kabi bilakatu zaigu Gasteiz. Ea nork ukatzen digun euskararekiko dugun lotura eta lanerako ardura. Eta kontuz, Apirilaren lehen egunean "Prudentzio Deuna" VI. bertso txapelketa martxan hasi baita.

Nork eskaini lezake gehiago?

Abel Enbeita



Umeak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Beatriz	22 61 18
Iholdi	14 45 91
Nekane	26 91 53
Eduardo	14 21 99
Leire	27 32 81

ARRATSALDEZ

Oihana	25 30 35
Imma	24 22 41
Rafa	25 22 68

GAUEZ

Esther	27 84 57
Imma	24 22 41
Iholdi	14 45 91

ASTEBURUETAN

Olatz	25 61 20
Jose Angel	27 62 41
Saida	26 58 05

Zeu ere haurrak zaintzeko prest baldin bazaude, deitu ezazu 22 21 53 telefonora edo idatzi 1691 postakutxara.



izozkiak

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Euskaraz bizi udalekuetan Zuaza eta Barria



Arabako Ikastolen Federazioa udalekuak antolatzeaz arduratzen da. Urtero bezala, aurtan ere, Arabako udalekuak Barrian eta Zuazan izango dira. Horrela, uztailean eta abuztuan, zortzi urtetik hamaseira bitarteko ume eta gazteek hamabost egun igaroko dituzte Arabako bi leku zoragarri horietan. Tailerrak, jaiak, mendi irteerak eta bestelako ekintzak egiteko aukera izango dute bertan. Udalekuei buruz hitz egiteko, Arabako Ikastolen Federazioko Josu Suarezengana jo dugu.

FORU ALDUNDIAK antolatzen ditu Arabako udalekuak; Gasteizkoak, berriz, hemengo Udalak. Arabako Ikastolen Federazioak ere badu zeresanik horretan bera baita, hain zuzen ere, udalekuak prestatzen, begiraleak aukeratzen eta abarrekoetan iharduten duena.

“ **Zuazako irlan piraguismoa, windsurfa, ibilbide ekologikoak, jaiak, tailerrak, mendi irteerak... antolatuko dira** ”

Zuaza eta Barriako udalekuek hiru hizkuntz eredu eskaintzen dituzte: euskarazkoa, euskara eta gaztelezkoa (elebiduna) zein ingelesezkoa. 1.500 lagunentzako lekua izango da, denak ere zenbait txandatan banatuak. Txanda bakoitza hamabost egunekoa izango da, guztiak ere ekintzez beteak. Esaterako, Zuazan urarekin zerikusirik duten aktibitateak izango dira nagusi: piraguismoa, windsurfa... Horiez gain, ibilbide ekologikoak, jaiak, tailerrek, mendi irteerak... ere izango dute beren lekutxo hango udalekuetan. Barriako aterbeak, berriz, bestelako ekintzak eskainiko ditu: bizikletak, pottokak... Eta horrez gain, beste tailer batzuk ere antolatuko dira: astrologia, musika edo bertsolaritza lantzekoak, besteak beste.

Ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Zuaza eta Barria

Udalekuen prezioa hoge mila pezeta ingurukoa izango da. Janaria, garraioa eta gainerako ekintzak prezio horren barnean egongo dira. "Kostua askoz altuagoa da, baina begiraleen ordainketa, garraioa eta gastuak estaltzeko behar izango den dirua Diputazioak hartuko du bere gain".

Txanda bakoitzean 400 pertsona joango dira Zuazara. Lagun horiek guztiak kanpamenduetan egongo dira antolatuz, kanpamendu bakoitzak 40 haur izango dituela. Legeak arautzen duenaren arabera, begirale bat behar da hamar umeei, bai eta zuzendaria eta zuzendariordea ere. "Beraz, Zuazako kanpamendu bakoitzean lau begirale egongo dira; Barrian, berriz, 180 lagun izango direnez, 18 begirale behar izango dira, zuzendaria eta zuzendariordea", adierazi digu Josu Suarezek.

Euskaraz lan egiteko aukera

Udalekuen begiraleei buruzko araudiak argi uzten du begirale bakoitzak zer prestakuntza izan behar duen. Hauexek dira begirale batek bete beharreko baldintzak: begirale-agiriaren jabe izatea ala bi urteko esperientzia edukitzea haur-ekintzetan. "Dena den, hamar begiraleetatik bat esperientziarik gabekoa izango da, jende berriari aukera emateko".

“Barriako aterpeak ere denetarik eskainiko du: bizikletak, pottokak eta astrologia, musika edo bertsolaritza ikastaroak...”

Arabako Ikastolen Federazioak deialdia egiten du begiralegaiek izena eman dezaten bertan. Fitxa eta curriculum moduko bat bete ondoren, Federazioak baloratuko ditu begiralegai guztien merezimenduak, hiru irizpideren arabera baloratuko ere: euskara maila, prestakuntza edo begirale izateko gaitasuna eta ikasketak.

Funtsezkoa da jendeari euskaraz lan egiteko aukera ematea, Josu Suarezek adierazi digunez. "Orain dela bost urte, Araban ia ez zegoen begirale euskaldunik, baina gauzak dexente aldatzen joan dira". Dena dela, arabarrak ezezik, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak ere apuntatzen da begirale izateko. "Kontuan hartu behar da 150 begirale behar direla, eta Araban ez dagoela 18 urte gorako euskaldun askorik. Baina, egoera aldatzen ari da". Josuren iritziz, haurren begiralea izateko ohitura falta ere egon daiteke Araban. Horra hor, datu esanguratsu bat: bost begiraleetatik bakarra da arabarra.

Bestalde, Josuren arabera, oso



garrantzitsua da ekintzak euskaraz antolatzea, bestela, jendeak ez du bere burua prestatuko begiralea izateko. "Euskara bultzatu behar da, bai udalekuetan parte hartuz, bai begirale lan eginez, bai haurrak udalekuetarako apuntaraziz". Horrela, bere ustez, euskara bultzatuko dugu, udalekuak eta, euskaraz bizitzeko aukera ezin hobeak baitira.

Itziar Mtnez. de Santos

ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lenteen abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna. Erabili... eta bota. Horren erraza. Eta horregatik, beti ikusmen bikaina, ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa.

Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak!

MULTILENS botatzeko lenteak: Erosotasuna ez baita botatzekoa.



6 LENTIXKETAKO
KUTXATILA:
BAKARRIK 6.000 PTA.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

ZAIN EGOTEAK NERE ONETIK ATERATZEN NAU

Maite Mendiburu



- ❑ Baionan jaioa da. "1.954ean, martxoaren 18an". Piscis da. "Ez naiz batere piscis sentitzen. Esaten dute esku tikiak eta oin tikiak dituztela. Ni hortik hasita, justu alderantziz". Ez dio hemen-hauetako horoskopoi erreparatzen baina bestelakoari. "Horoskopo txinoa gustatzen zait. Han zaldia naiz". Irakurri zuen horri buruzko liburua eta ontzat eman. "Identifikatu nintzen zaldiarekin".
- ❑ Lapurtarrak ditu gurasoak. "Aita Luhoskoa; hizkeraz behenafarreraz egiten dute. Ama, Makea, justu ondoko herria".
- ❑ Hiriaren erdian bizi da, Santa Barbara plazan. 1.976an etorri zen Gasteiza eta ez du damurik. "Gasteizen oso ondo nago". Gasteizko asko baino gasteiztarrago. "Hala sentitzen naiz".
- ❑ Bost lagun dira etxean eta lau emakumezko. "Kejatzten da senarra. Esaten du guk dugula boterea baina zenbakitan ere gehiago gara eta...". Gasteizko Irakasle Eskolako irakasle da. Euskararen didaktikaren ardura du. Ez du ikasleen euskararen aitzakiarik. "Gizartearen ispilu da eskola. Aurkitzen dira oso maila polita dutenak eta oso euskara freskoa dutenak, eta landua dutenak ere bai. Denetarik dago". Gasteiztarrak ezezik, arabarrak. "Gero eta gehiago".
- ❑ Kirola izan du afizio. "Gaztetan atletismoa egiten nuen. Baina berdin litzateke saskibaloia, tenisa... uretako gauzak ezik". Neska gaztetan 600 metroko lasterketan zuen markarik onena.
- ❑ Elkar hizketari ekiteko kezkatzen da. "Gehiegi hitzegiteko beldurra". Izakerak ez dio laguntzen. "Betebeharrak betetzeko buelta asko ematen dut". Eskerrak lo onari. "Beti lo egiten dut oso ongi".

ZEIN DUZU BIZIORIK HANDIENA?

Txokolatearena ez dakit esan behar dudan. Beste bat, binakako egoeretan, lagunekin, ezin isildua naizela. Hitzegiten dut ikaragarri. Konfidantzazkoekin, e! Talde haundietan isilik egoten naiz. Bizio da ezin utzi diozunean, isilik egon nahi eta ezin... Hori gertatzen zait batzuetan.

ETA BERTUTEA?

Eguneroko gauzen preziatzen jakitea edo; estimua. Gauzentzako eta jendeentzako ere bai.

FAMATU ADISKIDE BATEN IZENA?

Iparraldeko birena emango dut, oso adiskide izan nituenak han bizi nintzelarik: Daniel Landart eta Anje Duhalde.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Amnistia.

JENIORIK BADUZU?

Nire alabek esaten dute ikaragarria dudala. Nik uste dut oso sutua naizela. Lankideek ez dut uste esango luketenik, gordetzen dudalako, nire burua kontrolatzen dut; baina etxean, dirudienez, askatzen dut.

ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Gero eta gauza gutxiagok. Gauza txikiek. Bata da zain egotea, norbait berandu iristen denean. Horrek ateratzen nau nire onetik, baina guztiz. Eta sistematikoki pertsona beren zain egotea, eman dezagun. Etsaiak egingo ditut nik honekin!

ZEIN DUZU MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?

Kartzelan ditudan bi lengusu, Parisen. Batek hamar urte darama, hamaikagarren urtean sartzen ari da. Nik uste dut zakurkeria ikaragarriak egin dizkiotela. Iaz ikusi nuen lehenengo aldiz. Eman zidaten baimena ikusteko. Horiek libre ikustea...

GEU ELKARTEA EZAGUTZEN DUZU?

Bai, bistan da. Eta bere filosofiarekin oso-oso konforme. Oso gustora hartu nuen horren sorrera.

EGUNKARIEN BAT?

Egunkaria.

OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Moldatu izan naiz garaiei eta aukerei eta, baina nik, nirez, uste dut mendia aukeratuko

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

nukeela. Bada eskualde bat oso maite dudana, Pirineotan, Cauterets ingurua... nik uste dut ia beti hara joango nintzatekeela, ibiltzeko han. Vignemale azpiko ibilbide haietan eguneko irtenaldiak eta egiteko; eta deskantsatzeko.

ETXEKO LANAK NORK?

Egia esan behar bada, badugu norbait etxeko lan handiena egiten diguna; lan gogorrena egina dugu. Gelditzen dena, gehiena nik baina gero eta parte hartze handiago dute gure alabek; batez ere asteburu eta oporretan.

NONGO EUSKARA DUZU?

Badut arantza bat sartua. Nik uste dut, beharbada, bi euskara ditudala, eta horrek errabia ematen dit. Badut batetik eskuara edo, eta bestaldetik euskara. Momentu txarrak ziren edo, ez dut jakin zubia egiten, beharbada. Batzuk miresten ditut, jakin dute beren etxeko euskaratik batura bide politago bat egiten, eta nik bi kode bezala erabiltzen ditut askotan. Bata irakaskuntzakoa edo Gasteizen erabiltzen dudana, eta bestea etxekoa. Etxekoari uko egiten diot pixka bat... Etxekoa esan nahi dut gurasoengandik ikasi dudana hori; behenafarrera da gehiago lapurtera baino.

JAKI GOXOREN BAT?

Jatea oso gustoko dut. Azken denboretan jaten ari naizen gauza bat: letxu plater handi bat ahuntz gaztarekin. Iparraldean asko jaten

da. Ahuntz gazta izan behar da. Oso goxoa da.

FILMEREN BAT?

Ez dakit zein esan ere, asko dira eta. "Sacco eta Vanzetti", gaztetan ikusi nuen, inpresio ikaragarria, trastornatu nintzen filme harekin.

AKTORE IZENIK, GIZONEZKO NAHIZ

EMAKUMEZKOA?

Aspaldiko -orain ez da ari-, Glenda Jackson, eta Elena Irureta.

TXIKITAKO OROITZAPEN EDERRIK?

Asko. Luhuson oporretara bidaltzen ninduten udan, eta aitatzirekin pasatutako orduak eta egunak, isiltasunean gehienetan. Ez zuen ia-ia hitzegiten berak, oso gutxi. Askotan izaten zen barrutian, edo mahastira joaten ginen egun osorako bi-biak. Ia ez genuen hitzegiten, bera artzain egona zen Ameriketara eta galdua zuen hitzegiteko ohitura. Nik hura oso maitea nuen, bakean egoten nintzen berarekin. Beti bazuen hitz goxo bat. Itzultzen ginenean esaten zuen: "Hau da, hau, zaluena mendian ibiltzeko. Prestua da". Oso oroitzapen ederra dut momentu haietaz.

ZEURE GORPUTZ-ATALIK POLITENA?

Ez dut politagorik.

AMETSIK BAI, ILUSIO HANDIREN BAT?

Beti izaten ditut ilusioak eta proiektuak. Bada bat aspaldiko urteetan dudana -ez dakit egingo dudana-, eta da mendi trabesia bat

egitea, Pirineotan eman dezagun. Astebeteko ibilaldia goi horietan lo eginez edo, lagun batzuekin.

GIZARTE ARLOAN ZER ALDATUKO ZENUKE?

Pobrezia, konpetibitatea, bizitza erritmoa... eskola ere goitik behera!

LIBURU GOMENDAGARRIREN BAT?

Asko ditut. Liburuaren balioa ikusiz, argazkiak eta... liburu oso ederra iruditzen zait "Buru ilhun lurruntzua", Felipe Uriarterena.

IDAZLEREN BAT?

Asko ditut maite baina Sarrionaindia oso maite dut.

IDOLOREN BAT?

Nire adinean ez da batere serioa baina bi emango ditut: Bakarty James eta bestea Etxahun Barkoxekoa.

ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ZUTAZ

ESATEA, ZU HIL ETA GERO?

"Gogoratzen zara zer irriak bota genituen egun hartan harekin?".

ETA BIZI ZARELA?

Gustora egoten dela nirekin.

ZEIN DA ZURE MAITASUN EGOERA?

Hori ez da galdera serioa... Egoera zibilizatua eta ezin formalagoa.

Miel Anjel Elustondo

Florida 35

adaka M madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

BBB eta UBI
euskaraz?
non? NOSKI



ARMENTIA IKASTOLAn kooperatiba

**Euskal Hezkuntzan Haize Berria
MATRIKULATU ZAITEZ!**

eta ez ahaztu

Ekainaren 18an ARMENTIAN

ARABA

EUSKARAZ'95

BAIETZ ATERA !



araba euskaraz 95

HOGITA HAMAIRU MILOI ORDAINDU DU NAFARROAKO AURREZKI KUTXAK

Leizarragaren biblia Nafarroan berriro



Berriro dugu Euskal Herrian Leizarragaren Biblia: martxoan Londonen egindako enkanteari esker, Nafarroako Aurrezki Kutxak eskuratu du. Erosketa horrek jendearen harridura sortu du. Izan ere, liburuaren hasierako balorazioa bi miloi pezetakoa izan arren, 33 milioi pezeta ordaindu ziren. Gasteizko Sancho El Sabio Fundazioa ere izan zen bertan. Carmen Gomez Fundazioko zuzendariarekin hitz egin dugu gai horren ingurukoak argitu nahirik.



EUSKAL HERRIKO egunkari, irrati eta telebistetan emandako informazioari esker, euskal kulturarekiko kezka dugu-nok ondo baino hobeto jarraitu ahal izan ditugu Joannes Leizarragaren Bibliaren inguruko gorabehera guztiak. Martxoaren 15ean Londoneko Christie's etxean egindako enkantean lehia bizia gertatu zen bi ordezkariaren artean: batetik, Arabako Sancho El Sabiokoa eta, bestetik, izena ezkutuan gorde nahi zuen enkantatzaile bat. Azkenean, lehiatzaile misteriotso hark lortu zuen Joannes Leizarragaren "Jesus Christ Gure Lagunaren Testamendu Berriaren" lehen edizioa alea eskuratzea. Geroago jakin ahal izan denez, Nafarroako Aurrezki Kutxaren izenean ari zen izenik gabeko ordezkari hura. Sancho El Sabio fundazio gasteiztarra ere izan zen bertan.

Akordiorik ez

Sancho El Sabio Fundazioko zuzendaria argitu digunez, akordioa eginda joan ziren Leizarragaren Bibliaren enkantera. Nafarrek, ordea, azpijokoa egin zieten bertan. "Madrilgo Liburutegi Nazionalarekin, hainbat liburu-saltzailerekin.... hitz eginda ginen aurretik, eta guztiok ados geunden Biblia bere prezioan erosteko. Beraz, kontsentsua egin ondoren, Sancho El Sabio Fundazioak aukera gehiago zuen Biblia eskuratzeko".

“**Denok ados jarri izan bagina akordio batera iritsiko ginatekeen**”

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34
Gorbea 27
Ariznabarra 17

tfnoa: 24 75 04
tfnoa: 24 22 05
tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

Carmenen esanetan, nafarrek adierazi zuten era testimonialean joango zirela, 2,5 milioi pezeta eskainiz, hain zuten ere. Horrexegatik, gasteiztarrek ez ziren nafarrekin adostu enkantearen aurretik. "Denok ados jarri izan bagina, bidea erraztuko geniekeen Biblia merkeago eros zezaten. Horrela izan balitz, gu, behar bada, enkantetik kanpo geratuko ginatkeen. Baina, guk ez genekien nafarrek joko bikoitza erabiliko zutenik".

Sancho El Sabio Fundazioko zuzendariak gogoratu digu Nafarroako Aurrezki Kutxak bazekiela Sancho El Sabio Fundazioak enkantera joan behar zuela, bai eta bertara zenbat diru eramango zuen ere. Gasteiztarrek 31 milioi pezeta eskaini zituzten, baina liburua eskuratzeko grinak liburuaren prezioa puztu zuen. Horrela, azkenean, 166.500 libera ordaindu behar izan ziren liburuaren truke.

“Pozik nago Biblia nafarren eskuetan geratu delako”

Pozik halere

Nafarrek liburua eskuratzeko modu ezkutua baino ez du agertu nahi izan Carmen Gomezek. Sancho El Sabio Fundazioarekin harremanetan jarri ez izana du damu bakarra. Hala ere, pozik dago Biblia Nafarroara joan delako: "Primeran deritzogu liburua Nafarroara joan izanari, baina gure artean akordio bat



egin izan bagenu, arrazoizkoago izango zatekeen".

Bestalde, liburua oso baliotsua dela aipatu digu Carmen Gomezek, Euskal Herriko kulturaren ondare historikoaren zati garrantzitsua delako. "Hala ere, guk ez genuen erosi nahi balio handiko lana izateagatik soilik. Sancho El Sabio Fundazioa bezalako zentro bat ez da garrantzitsua halako lan batengatik edo biengatik... biltzen dituen lan guztiengatik baizik".

Martxoan Londresen enkantean saldutako Bibliaren alea aurkitutako hirugarrena da. Horrelako 20 bat ale gehiago egon daitezke. Leizarragaren liburuaren aleak Nafarroako Joana Albretekoa erreginaren armarria agertzen du azalean. Izan ere, Leizarragak erregina horri XVI. mendean egindako oparia izan zen. Liburua protestantea da, Eliza Katoliko-

aren suteetako garretatik ihes egina. Atarramendu okerragorik izan zuten beste lan protestante askok. Horrela, leku batetik bestera bidaiatzen ibili da Leizarragaren Biblia Euskal Herrira iritsi arte.

Balio handiko lana

Aditu askoren iritziz, nafarrek Bibliaren-gatik ordaindu dutena gehiegizkoa da. Adibide modura esan dezagun Irlandako lehengo katezismoaren ale bat Londoneko saio berean saldu zela hamar milioi pezetaren truke. "Balio historiko eta artistiko handia izan arren, liburu hau ezin da diruz baloratu. Bizitza honetan ordaintzen den guztiak balioa du. Beraz, eskaera eta eskaintzaren arabera dago enkantearen mundua ere. Baina, begi bistakoa da liburua merkeago eros zitekeela".

Susana Calleja



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU

Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA

S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA

Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

IRUSTA
poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro
ezinhobeak
Kutxileria 23

BEHAR DUGU

Udai euskaia

HERRI BATASUNA

Sei txapela bat



EZ DAUDE

BATERE pozik bertso-lariak Prudentzio Deunaren Sari Nagusian egindako lanarekin. Zigor Enbeitak, aurreko bi urteetako txapeldunak, ondo-enik azaldu digu Legutioko saioan gertatutakoa: "Asier Iriondo eta Asier Otamendi ondo ikusi nituen; Oihane Perea, baju; Rikardo Glz. de Durana irregular eta Dani Kastaños errodaje faltan. Ni finalera pasatzera joan nintzen besterik barik, ez nengoen bat-ere

motibaturik". Irabazlearen izena ematen ere ausartu da Dani Kastaños: "Jarri aldizkarian Asier Otamendik edo Asier Iriondok irabaziko dutela". Hortaz, Prudentzio Deunaren Sari Nagusiko txapela gipuzkoar baten burura joango al da? Hala balitz, ez litzateke ezer gertatuko. Bertsolariak behintzat ez daude batere kezkatutik, "ilusionaturik baizik, jende berria ateratzea beti ona da-eta", Daniren iritziz.

Rikardo Gonzalez de Durana izan da aurtengo

Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama VI. Bertso Sariaren txapela eskuratu duena. Asier Otamendi, berriz, bigarren geratu zen. Sei ziren, hasierako hautagaiak eta bakar bat txapela jantzi behar zuena.

Oreitiako bertsolariak hutsik egin gabe eta erregularitasuna erakutsiz, gailendu zitzaizen gainontzekoei.

Dani Kastañok kantatu zuen bertsorik onena eta Asier Iriondo aukeratu zuten bertsolaririk xebleena

Lerro hauetara, lehiaketaren aurretik plazaratu zizkiguten hainbat kontakizun ekarri nahi izan ditugu.

HEGOALDE
euskaltegia



Florida kalea
58 behe

tfnoa 28 41 96

01005
GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



IRUNA
TABERNA

HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Abuztuaren 15a arte irekita
Barra goizeko 7etatik aurrera
Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak



Portal
del
Rey 9

GASTEIZ

Bertso saio gutxi

Halere, ez daude ez batere konforme geratu beren lanarekin finalean parte hartuko duten bertsolari arabarrak. Guztiek ere entrenamendu falta somatu dute Legution apirilaren 8an egindako finalerdian. Izan ere, urtean zehar, plazara ateratzeko oso aukera gutxi izaten dute. Txapela iaz eskuratu izanak ate batzuk irekiko zizkiolakoan geunden gu, baina, "bai zera! Ni laupabost bertso saio baino gehiagotan ez naiz aritu, eta besteak are gutxiagotan!", kexu da Zigor. "Gainerako bertsolariok AEK edo IKAK antolatutako afarietan eta omenaldiren batean aritzeko aukera izaten dugu baina benetako bertso saiorik ez digute ematen", zehaztu du Danik. Gasteizen gero eta saio gehiago ikusteko

aukera dagoen arren, gutxitan entzuten ditugu bertako bertsolarien kantuak. "Jendea ahalik eta ekitaldirik hoberena eskaini behar zaio", uste izan du Danik. Zigorrek, berriz, goi mailako bertso saio bat egiteko kanpokoak ekarri behar direla onartzen duen arren, arabarrei aukera gehiago eman behar zaiela aldarrikatzen du: "Beti kanpokoak ekarri ez dugu inoiz bertsolaririk izango hemen. Araban bertsolari onik ez dagoela esatera ohitu gara baina daudenei plazan iharduteko aukerarik ematen ez bazaie, ez da sekula maila oneko bertsolaririk aterako". Rikardo ere iritzi berekoa da, bere ustez, ondo kantatu ahal izateko plazetan aritzea behar-beharrezkoa da, "horrexegatik izaten dugu guk abesteko erraztasun falta hori". Ez du arrazoi falta.

Bultzada baten beharrean

Oihane izan da baikorrena mintzatzekoan, oztopoak gainerako bertsolariek bezain argi ikusi arren. "Arabako bertsolaritza haurtzaroan dago oraindik eta oraingoz ezin da beste herrialdeetakoarekin alderatu. Garrantzitsuena, ordea, hau da: lanean ari garela". Era berean, hemengo bertsolaritzaren etorkizuna azpimarratu nahi izan du, finalera heldu direnak oso gazteak baitira. Bertsolari gazteak ditu ezaugarritzat gure bertsolaritza gazteak; gazteak baina, aldi berean, beteranoak, bertsoketako borroka latzetan zailduak. Oihane taldeko gazteena da eta oraingo hau hirugarren finala izango du.

Aurtengo finalean iazko aurpegi berberak ikusi ahal izango ditugu. Hori ez da arduragai Oihanerentzat: "Gaur egun Araban dagoen onena sei bertsolarien talde horretan dago, baina oso seikote gaztea denez, ez dago kezkatzeko arrazoirik".

Bertsolaritza gazte honek emateko asko du, Zigorren ustez. "15 edo 16 urteko gazte dexente daude, asko emateko bultzada bat baino behar ez dutenak. Prudentzio Deunaren Saria ospatzen den garaian baino ez gara gogoratzen hemengo bertsolariez; horrela ez dago zereginik". Argi asko du, gainera, txapeldunak zer nolako bultzada behar duten gazte bertsolarigaiek: "Eskolatik plazara atera behar dira, etxean ikasitako bi bertso botatzeko besterik ez bada ere".

Leire Lpz. de Aberasturi



**EKAINAREN
3an
PLAZA
BERRIAN**


*etor
zaitez!*



IKAPERIA

• *aratzaldeko
Setatik aurrera*

- artisauak
- gaiteroak
- buruhandiak
- antzerkia
- trikitilariak
- txistulariak
- hankapaluak
- txarangak
- jolasak
- /.../



egunez egun hazten ari Lakua-Arriaga

Gasteiz iparraldean, gauri batean herrixka izandako Arriagaren inguruan kokatua dago Lakua-Arriaga auzoa. Bere hegoaldean El Pilar eta Zaramaga auzoak ditu eta iparraldean Zadorra ibaia; tartean, Arriagako San Juan ermita eta parke zoragarria. Ez du Gasteizko beste zenbait auzok duten berezko nortasunik. Besteak beste, etxe berriak eta biztanleriaren gaztetasuna dira bere ezaugarri.



AUZOKO EGUNEROKO gora-beheren berri gertutik ezagutzeko Ipar-Arriaga izeneko auzo elkartera jo dugu. Placido Blanco, gaur egun auzo elkarte horretako presidente dena, bertan topatu dugu. Bera izan dugu berriemaile.

Ipar-Arriaga auzo elkartearen estatutuak 1982ko martxoaren 16an onartu ziren. Ordutik hona hiru leku aldaketa egin behar izan dituzte egun duten egoitza lortu bitartean. Utzita eta nahiko isolaturik zegoen etxe zahar batean izan ziren lehenengo, kiroldegian ondoren. Orain, azkenean, auzoko gizarte-etxean dute beren egoitza. "Gustora gaude hemen, bi bulego txiki eta bilera areto bat badauzkagu eta. Ez dugu lekuri, ordea, gustatuko litzaizkigukeen beste hainbat ekintza aurrera eramateko. Momentuz gizarte-etxearekin konpondu behar dugu nahiz eta horiek beti jendez beteta egoten diren" dio.

Auzoan gauza asko omen dago oraindik egiteko. Egunetik gauera hazten ari den auzo izateak dakartzan arazoak jasan behar dituzte bertako auzotarrek. Azken batean, Placido Blanco presidenteak dioenez "auzotarren bizi kalitatea hobetzea da helburua. Esaterako, auzoan kirol gune bat beharrezkoa dugu eta ez daukagu. Auzoko futbol eta futbitoko taldeek Zaramagara joan behar dute jolastera. Han, gainera, talde ugari biltzen da eta leku arazoa dute." Arnasa hartzeko ia betarik hartu gabe jarraitzen du hitz eta pitz, gero eta arinago. Gauza asko dabilzki buruan, "baldintza egokiak betetzen ez dituzten behin-behineko eraikuntzen eta zerbitzuen kalitatea hobetzea da gure nahia. Adibidez, anbulatorioa aurrez fabrikatutako eraikuntza bat da eta ez du ginekologia zerbitzurik eskaintzen. Kontuan izanik honera bizitzera etortzen diren gehienak

bikote ezkonberriak edo eta familia gazteak direla, hori kontraesan bat da. Antzeko gauza gertatzen zaigu eskolarekin. Auzoan ez dago ia jubilatutik baina haur asko dago eta O.H.O.ko 8.mailako zenbait gela behin-behineko eraikuntza batzuetan egin dituzte. Garrantzi txikiagoko beste makina bat arazo ere hor daude. Herri garraioko autobusen maiztasuna, auzoko kale eta espaloien hornidura eta apainketa, Arriaga parkeko segurtasuna..."

Placido Blanco berotu egin da eta etengabea da bere hitz jarioa. Beste galdera bat eginez moztu behar izan dugu gizona. HIES gaitzak jotako gaisoentzat Udalak auzoan egokitutako etxeari buruz iritzia eskatu diogu. Bere aurpegiak itxura serioagoa hartu du bapatean. "Jendearen artean bi multzo sortu ziren. Egitasmo horren berri izan zutenean batzuk kontra

ion'S

Taberna
era guztietako garagardoak
arratsaldeko 5etatik goizaldera
arte irekita

Salvador de Aspiazu, 11 - Tfnoa: 24 66 17

LARRI **ETXEA**

Zapa, 38

EL **BAR** **Kutxi**

eguneko menua

den auzoa

jarri ziren eta Udalari beren kezka azaldu zioten. Auzoko asanblada bat egin genuen auzotarrei informazioa emateko eta badirudi beldurak uxatu egin direla. Momentuz behintzat ez da istilu gehiagorik sortu eta lanak aurrera doaz. Horrez gain, badirudi auzoko zenbait lagun prest agertu zirela gaiso horien zainketaz arduratzeko. Era guztietako eritziak, beraz.”

Ipar-Arriaga auzo elkarteko buruak dei bat egin nahi die auzotar guztiei elkartera hurbiltzeko. “Auzoko giroa hobetzeko, jendearen arteko harremanak estuagoak izatea nahi genuke. Urtean zehar ahalegintzen gara auzotarren partehartzea eskatzen duten ekintza desberdinak antolatzen. Jadanik prestatzen ari gara Sanjuanetako jaiak, ihauterietan konpartsa bat ateratzen dugu, Gabonetan Olentzeroa”

Euskararen egoerari buruz galdetu diogu amaitzeko. Erantzuna ohikoa. “Kalean ez da entzuten ia euskararik baina Umandi ikastolan haur asko dago eta tarteka topa daiteke beren seme-alabei euskaraz egiten dien gurasorik ere.”

Xabier Zabalet



Flaco Jimenezek bisita egin digu



ARTIKULU HAU irakurtzen

duzuenerako, Flaco Jiménez gure hiritik urrun izango da, baina seguru asko maiatzaren lehen egindako kontzertuaren soinu alaiek Gasteizko giroan jarraituko dute oraindik, bero-bero.

Arabako Foru Aldundiak antolaturik, Principal antzokian ikusi ahal izango dugu, bizirik dagoela, mende honetako soinu-jolerik famatuena, musikaren leienda dagoeneko bihurtua. Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren, hemen izango dugu Santiago Jiménez Junior-en notak dastatzeko azken parada.

Haren aitaren oin-hotsari jarraikiz, 1957an grabatu zuen estraineko diskoa, Los Caminantes taldekoak musikakide izan zituelarik egun haietan. Handik aurrera, haren karrerak ez du etenik izan. Bakarka zein taldeka heldu ziren lehendabiziko kanta arrakastatsuak: “Ayl!, te dejo en San Antonio”, “Anselma”, “El pantalón blue jean”. Kanta horiek sortu bezain laster, klasiko bihurtu ziren. Santiago Jiménez Senior urratzen saiatu zen bidea tinkatuz zihoan Flaco Jiménez gaztearen lanari esker.

Tex-Mex izena zuelarik, musika mota hori

leku garrantzitsua betetzen hasi zen XX. mendeko kulturari. Jatorrizko mugak apurturik zeuden; Mexico eta Texas txikiegi gelditzen ziren Tex-Mex-en indarraren aurrean. Soinu diatonikoa ezinbestekoa genuen Flaco Jiménez-en eskuetan, eta haren eragina laster isladatu zen rock and roll-ean.

Texas Tornados taldearekin batera sortutako lanek (ez dezagun ahaztu lagun horiek “ZONE OUR OWN” grabatutako diska harrigarria) arrazoia ematen diote Flaco Jiménez-i, akordeoiak merezi duen lekua bereganatzeko gogotik ihardun baitu lagun honek.

Ry Cooder-ek, Bob Dylan-ek, eta duela gutxi The Rolling Stones taldeak ere (Voodoo Lounge LP-an) oso gustoko izan dute Flaco Jiménez kolaboratzaile izatea. Berak lan berriak egiten jarraitu du. Harrera ona izango duen ala ez, ezin jakin, areago, ez du ajola. Izan ere, ezin da zalantzan jarri gizon horren maisutasuna eta paregabekotasuna. Urte luzetako ihardunak hala bermatzen du, gainera.

Joxemari-Txabi Arnal Gil

asmo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10

DISCO BAR



TXAPELDUN
KUTXI kalean

Tu Invernadero

ALDABE 6 BEHEA

tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

mos tongot

hAurRAK

Gasteizko alkatea bazina, zer aldatuko zenuke?

IKASTOLAREN lekuan zoo bat eraikiko nuke. Hor igerilekuak eta parkeak egongo lirakeke. Bestalde, gizon batzuek jende guztia garraiatuko lukete "limousin" batzuetan. Horrez gain, kotxeek hegaz egingo lukete, errepideetatik ibili beharrean.

Maialen, 10 urte

PARKE GEHIAGO egingo nituzke, non errokodromoak eta piztiak egongo lirakekeen. Gainera, semaforoek ez lukete orain beste denbora beharko berde jartzeko.

Amaia, 10 urte

NI ALKATEA izango banintz, errepideetan seinale eta errotonda gehiago jarriko nituzke. Horrek funtzionatuko ez balu, kotxe txikiagoak egingo nituzke, horrela hirian kotxe gehiago sartuko lirakeke.

Nerea, 10 urte

SEMAFOROEN argiak gorria, laranja eta berdea izan beharrean, arrosa, marroia, eta horia izango lirakeke.

Iosu, 10 urte

Demagun hauteskundeen ondorioz, okerrean, zu izendatu zaituztela Gasteizko alkate, aho batez, gainera. Egoera horretan egonda gure txikitxoek zer egingo luketen jakin nahirik Umandi ikastolara joan gara eta hango mostrongotxoei galdera hau egin: Gasteizko alkate izendatuko bazintuzte, ze aldaketa egingo zenituzke? Ana andereñoaren umeen erantzun izugarriak ezagutu nahi badituzu, adi egon orain datorrenari.

FLORIDA BEZALAKO parke ugari egongo lirakeke, eta hor zuhaitz asko landatuko genituzke. Egun batzuetan, kotxeek debekatuta lukete hirian ibiltzea. Ura Arabatik Andaluziara eramango nuke, hango jendeak ur gehiago edan dezan.

Ander, 10 urte

Nik kirolei diru gehiago emango nieke. Igandeetan kotxea erabiltzea debekatuko nuke. Droga arazoa konpontzeko polizien kopuru handitu egingo nuke. Txiroentzako etxe handi-handia eraikiko nuke.

Unai, 11 urte

ZOO BAT jarriko nuke, ikastolak txikitu ondoren. Niri ikastola ez zait gustatzen, etxeko lan gehiegi agintzen digute, eta, gainera, musika eskoletara joaten naizenez, etxeko lanak egiteko ez dut ia denborarik izaten. Txutxeria-denda berriak irekiko nituzke. Gozokiak osasunarentzat txarrak badira ere, ezin naiz gozokirik gabe egon, hain naiz gozozalea...

Unai, 10 urte

NI ALKATEA banintz, Baskoniaren partiduak dohainezkoak lirakeke.

Aitor, 11 urte



GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

xoak

GASTEIZKO alkatea izatekotan, intsumisioa legeztatuko nuke. Mendizorrotzako futbol zelaia eta Araba pabeiloa handituko nituzke. "Geu Gasteiz" denei bidaliko nieke, eta musika kontzertuak leku guztietan eta etengabe egongo lirakeke.

Aitor, 11 urte

IKASTOLAK kenduko nituzke eta komiki-denda gehiago ireki.

Erlantz, 10 urte

Lorea Zurimendi



**MAIATZAREN 28AN,
IGANDEA
6,30etan PRINCIPAL
ANTZOKIAN**

Takolo, Pirritx eta Porrotx: dibertimendua seguru

Musika nahasketa

Beren musika alaia izateaz gain, mota eta estilo guztiak nahasten ditu: rock, kountry, vals... era askotako nahasketa bat egin arte. Pailazoen izaerak eta haurren partizipazioa suspertu nahiak, orde, lehenean diraute. Haurrentzat eta hurrekin lan egiten dute. Horren erakusgarria da Ordiziako musika eskolako 36 hurrek beren notarik onenak jarri dituztela disko honetan.

Hamalau abestiz osatutako disko berriari freskotasuna dario lau ertzetatik. Alaia da, oso-oso martxosoa, eta batez ere irudimen handiz landua. Beren esanetan, umeentzat eta hain ume ez direnentzat ere aproposa da Takolo, Pirritx eta Porrotxen azken lan hau. Eta, gainera, Joseba Tapiaren (Tapia eta Leturia) kolaborazioa somatu ahal izango dugu diskoaren doinu alaietan.

Beren diskoa oraindik ere ezagutzen ez baduzu ez ezazu aukera galdu. Joan zaitez diska dendara eta eros ezazu, beren ikuskizunera kanta guztiak ezagututa joan ahal izateko. Korri eta eskaiozu amari; zihur gaude merezi duzula. Ah, diskoarekin batera, noski, ikuskizunerako sarrera erosi behar dizula gogoratu ezaiozu. Nik jadanik erosi ditut biak. Hurrengorarte haurrak. Ongi bizi!

ALAIK BAINO ALAIAGOAK, tontoak baino tontoagoak; eta hemendik aurrera, nahi izan ezker, zure lagun berriak. "Ongi bizi" disko-ikuskizuna kaleratu berri dute. Horren berri ez bada zure belarrietara heldu, zeren zain zaude? Joan zaitez sukaldara eta esaiozu amatxori: "Amatxo, amatxo, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak ikustera joan nahi dut!!!"

Pailazoen hirukote honen ibilia luzea da. 1987an beren lehenengo ikuskizuna eman zutenetik, jende askok egin die barre aurpegira. Gure Printzipal Antzokia izan da, besteak beste, beren trastakeria eta xelebrekerien testigu. 1993an, Elkar argitaletxearen eskutik, beren lehenengo diskoa kaleratu zuten, haur kantez hornitua, "Hau umorea", hain zuzen. Horren ondoren, "Beti martxan" etorri zen. Oraintsu kaleratu dute hirugarren diskoa, "Ongi bizi" izenekoa, eta horrek dagoeneko eskuratu du bere txokoa euskal musika denda guztietan, eta laster, zergatik ez, zure etxean ere bai.

SARRERAK:
Helduak: 600 pta
Umeak: 300 pta

• **ANTOLATZAILEA:** GEU ELKARTEA
• **BABESLEA:** ARABAKO FORU ALDUNDIA
• **LAGUNTZAILEAK:** EUSKADI IRRATIA, RADIO VITORIA,
EUSKALDUNON EGUNKARIA, ARGIA, BAGARE

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Sarrerak erosteko lekuak:

Herrikoia eta Axular
liburudendetan, Bagare
Euskal Tokian edota egunean
bertan Principal antzokian

MUSKARIA



Santa Maria kantoia

TABERNA

"ARGOS"
ZURE BURUA
EZAGUTZEKO
TOKIA

- **Astrologi aholkularitza**
- **Kizol eta terapia-masajea**
- **Bete-beteko terapiak**
- **Astrografia**
- **Ereflexoterapia**
- **Ikastaroak**

Gasteizko Hiribidea, 89, (atzekaldea)
☎ 242671 / 229329



GURE KIROLARIEN LANAREN BALANTZEA

Arabako kirola aztergai

BEHARBADA GU ez gara egokienak Arabako kirolaren egoera aztertzeko. Hala eta guztiz ere, **GEU GASTEIZek** ez du beste komunikabideak baino gutxiago izan nahi eta, beraz, hau pentsatu dugu, abestiak diotenaren ildotik: "Zergatik ez?" Orrialdeotatik ahal denik eta azterketa zehatzena egiten saiatuko gara segidan.

Ismael Diaz de Mendibil

HASI, ARABARROK dugun puntako taldetik hasi beharko dugu. Baskoniaz ari gara, noski. Zoritzarrez, dagoeneko lana amaitu da Baskoniarentzat. Araba Pabilioiko taldea ez da oso fin ibili denboraldiaren azken txanpan, eta erdi mailako talde batek, TDK Manresak, kanporatu egin du. Egindakoaren laburpena hauxe izan daiteke: Europako Kopan ondo, Errege Kopan oso ondo, Ligan gaizki.

Batek baino gehiagok esango digu gehiegi eskatzen dugula. Gure iritziz, ordea, talde honi eskatu egin behar zitzaion, kalitatea bazuen eta.

Errege Kopa irabazi eta gero, Manel Comasen taldeak behera egin zuen nabarmen, gero Andra Mari Zuriaren Plazako harrera-ospakizunak etorri ziren eta... Zenbait jokalarik pentsatu omen zuen hortxe bukatzen zela lana. Badakizue, onena zarela diozunean, auzo taldea iritsi eta punba! irabazi egiten dizu.

Eta datorren urtean zer?

Orain taldea oporretan dago. Datorren denboraldia irailean hasiko da. Oporrak luzeak izango dira, beraz. Denbora tarte horretan Kerejetak peoi guztiak mugituko ditu talde berria osatzeko. Bertan leku segurua izango duen jokalaria bakarra Ramon Rivas da. Halere, ez dut uste taldeak aldaketa askorik izango duenik Pablo Laso, Kenny Green, Santi Abad... zalantzan badaude ere.

Oso erromantikoa naiz beharbada, baina, nire iritziz, egungo izarrak diruzaleak besterik ez dira. Orain urte batzuk, Baskonia talde handia ez zenean, talde ona nahi zutela zioten orduko taldeko izarrek. Ez dago aitzakiarik, orain, huts-hutsean, diruaren bila ari dira eta. Ene bada! Sentimenduak, koloreak, taldea, hiria, Andra Mari Zuriaren Plazako harrera-ospakizunak, munduko zalegorik onena... Non ote dira hitz politik horiek oraingoan?

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

JATETXEA



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ



ZAPATA KONPONKETA

AZKARRA
GILTZEN KOPIAK

Benito Guinea, 18 GASTEIZ

Igo ala hil

Deportivo Alaves futbol taldea dugu Arabako kirolaren beste izarra. Urtero bezalaxe, Mendizorrotzak taldeak helburu bakarra dauka: iguera lortzea.

Denboraldia hasi baino lehen, zuzendaritza-taldeak inoiz baino apustu handiagoa egin zuen. Jokalari berriak ekartzeko dirutza jarri, eta haxe adierazi zuten aurkezpen-ekitaldian: "Igotzen ez bagara, zuzendaritza-talde honek beste batzuei utziko die lekua". Gauzak horrela, orain presioa inoiz baino handiagoa dela.

Play-off-etan taldearen benetako indarra ikusi ahal izango dugu. Baina ez dakit, susmoren bat hartu diot talde honi. Ligan arratsalde onak eta txarrak tartekatu dira. Talde ahulei gol pila sartu die Gasteizko taldeak; indartsuekin indarrak neurtzeko orduan, berriz, kaxkar samar ibili da Alavesa. Horra hor, esaterako, taldearen lana Sorian, Numanciaren kontra, edota Sestaon.

Dena den, ez gara ezkorrak izango. Play-off-a hortxe dago, eta guztiok Mendizorrotzakoen alde egin behar dugu apostua. Duela bi urte Gasteizera etorri zenean, hau esan zuen Aranguren:

"Taldea hau zakilarekin igoko dut". Bai hankarte miresgarria Alaveseko entrenatzailearena! Ea egia den!



**“Play-offetan
Alavesaren benetako
indarra ikus ahal
izango dugu”**

Besterik ere bai

Baina, jakina, Alavesa eta Baskonia taldeez gain, Arabako talde eta kirolari frankok ere merezi dute aipamen berezirik. Esaterako, Martin Fiz-ek Europako maratoi txapelketa eta Amsterdam-go maratoi proba eskuratu ditu berrikitan. Bestalde, EHUKo emakumezko boleibol taldeak datorren denboraldian ohorezko mailan ihardungo du, aurtan denboraldi benetan txalogarria egin eta gero. Juanito Oiarzabal mendigoizalea Makalu mendiaren gailurrean Arabako bandera ezartzekotan dago egunotan. Txirrindularitzari dagokionez, azken bolada hau Arabarentzat oso emankorra izan ez bada ere, Gonzalez de Galdeano anaiek hasiak dira hautsak harrotzen han hemengo errepideetan barna. Arte martzialeen atalean, Javier Lezkano taekondolaria dugu nabarmenena: Estatu mailako hirugarren postua eskuratuta, munduko txapelketan parte hartuko du Helsinkin.

Honaino Arabako kirolaririk entzutetsuenen aipamena. Halere, haien lana bezain txalogarria eta miresgarria da itzalean jo eta ke ari diren milaka kirolari arabarrena (GEU GASTEIZ saski-baloi taldea, kasu), gaur ereindakoa bihar jasokizun izango dugu eta.

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**
HARATEGIA



Florida Azoka
2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka
2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA

HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

TOLERANTZIAREN IZENEAN ARABAN ELEBITASUNAREN ALDE

EUSKARAK EZ DU INOR BAZTERTZEN

Dei egiten diegu alderdi politiko guztiei, ahaleginak egin ditzaten beraien arteko desberdintasun ideologikoengatik sortzen ari diren hizkuntz gatazkak galarazteko eta etikoki jokatzeko, euskararen etorkizuna beren interes elektoralean arabera baldintzatu gabe eta gai honi buruzko eztabaida zilegizkoak hartu duen garraztasun mailagatik hizkuntz komunitateen artean etenak irekitzen saiatu gabe.

Dei egiten diegu Arabako administrazio guztiei gure gizartea elebitasunaren bidean egiten ari den aurrerapausoak eta euskarak azken urteotan izan duen eta aurreratzean ere izango duen bilakaera positiboa kontutan izateko beren jardueran; horrek esan nahi du maila guztietan hartu behar dutela aintzakotzat gure herrialdean bizi den biztanleria euskalduna, egunez egun sortuz joango diren behar eta eskari berriei behar bezala erantzuteko. Horretaz gainera, hizkuntza inolako bazterkeriarako erabil ez dadin ere eskatzen dugu.

Azkenik, dei egiten diogu Arabako gizarte osoari, tolerantziaren urtea den honetan, tolerantziaz jokatzeko jakin dezan hizkuntzaren gaiarekin normaltasunez har dezan gure herriaren elebitasuna, bai ea haren eraginez gerta daitezkeen eragozpen edo deserosotasunak, gizarte zuzenago bat lortzeko; eta euskara izanik gure lurraldean egoera txarrean dagoen hizkuntza, berau suspertzeko ahaleginetan parte har dezan, gure herri osoaren kulturaren onerako

Milaka arabarrok

Iragarki hau ordaintzen laguntzeko kontua: VITAL KUTXA 2097 0150 95 0103243209

GURUTZEGRAMA

DeNb OrApa SaK



erantzunak



	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	M	A	I	A	T	Z	A		A	R
2	I									
3	K									
4	E									
5	L									
6	D									
7	I									
8	S									
9										
10										

ZE HARRETARA: 1. Gauden hilabetea. Eme ez. 2. Ikas eta ari. Roentgna. Iodoa. Potasioa. 3. Arduraz. Juntagailua. 4. Munduari bira eman zion getariarra. Errepikaturik dardarizo, ikara. 5. Laostar. Oxigenoa. Lehena. 6. Kolpe, bat-bateko agerpen. Ilargi. 7. (ald.) Nori atzizkia. Alokairua. 8. Euskal sindikatu bat. Noren (gu). 9. Energiaren ikurra. Lehena. Ingelesez jauna. Har ezak. 10. Non? Kantu-mota flamenkoa (pl.)

GOITIK BEHERA: 1. Gure hiriko zinemak. Euskal herria. 2. Sorgine gau-bilera. Lehena. 3. Joan den urtekoa. Gizakiaren jarduera. 4. Lehena. Edari freskagarri. Alkoholiko animoak. 5. Lasai. Donostiako autoetan. 6. Azkena. Animalak aztertzen dituen biologiaren adarra. 7. Amnesty International. Adineko gizona. 8. Zernahi. Tarragonako autoetan. 9. Agiri. Greziako irla. 10. Roentgena. Arabako ibaia. (Ald) Kristo ondoren.

**BAR
KLAKÉ**
**KUTXA, 2
TFN.
143883**
GASTEIZ
**ITURRI
TABERNA**
Zapa, 57 GASTEIZ

**HARATEGIA
ALDANONDO**
**P. Ubis Plaza
25 46 08**
01003 GASTEIZ
Hurbil zaitez herrietara


kultur agenda • MAIATZA •

KOLDO MITXELENA
INSTITUTUA
GASTEIZ

EUSKARA AHOTIK AHORA



AUREMATRIKULA ZABALIK
MAIATZAREN 4TIK 18RA
Eskaera guztiak onartuko dira

MALiko "FIEN-FE-Ton"
HERRIETAN 3 ERROTA
EGITEKO ZOZKETA

Zenbaki sarituak:
42.367 • 44.617 • 88.893 •
17.054 • 35.184 •

gogora ezazu...

BADA BIDERIK
errenta aitorpena

EUSKARAZ
egiteko
13 97 47



ika 7 Kultur aStEa euskaraz

ASTELEHENA 22

7 HANDIAK

(INDONESIA ETA ANTARTIDAKO MENDIAK)

RAMON AGIRRE

Filmina Emanaldia
Arratsaldeko 8etan Euskadiko Kutzaren aretoan
(Dato)

ASTEARTEA 23

BEHIN MUNDUAN

MUSIKAZ GIROTUTAKO IPUIA

J.M.KARRERE, MIKEL MARKEZ ETA ALAITZ TELLETXE

Goizeko 11,30etan eta arratsaldeko 8etan
Iparralde Gizarte-etxean

ASTEAZKENA 24

POESIA EMANALDIA

ASIER SERRANO

ETA TALDEA

Arratsaldeko 8,30etan Euskadiko Kutzaren
aretoan

OSTEGUNA 25

ZINEA

EUSKAL LABURMETRAIAK

Goizeko 11,30etan Mikeldi Zineman

KONTZERTUA

HIRU TRUKU

arratsaldeko 7,30etan Iparralde gizarte-etxean

OSTIRALA 26

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Noise Hole ETA TALDE SORPRESA

OSTEGUNA EKAINAREN 1

ANTZERKIA

EKEKEI "HILTEGIA"

Arratsaldeko 7,30etan Iparralde gizarte-etxean

GEU *rekin
mendira*

PAGOOGAN

maiatzak

21

(igandea)

IRTEERA: goizeko
bederatzi t'erdietan,
Prado kalean, Txapela
tabernaren aurrean.
Autobusez joango gara

ITZULERA: 2etan

Ibilbidea:

OKINA GAINA
PAGOOGAN
MENDIOLA
GASTEIZ



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33



GORETTI ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

Gasteizko Udaletxeko
Gizarte-Ongizate
Sailak antolatuta



Gizarte etxeak euskaraz

BERTSO SAIOA

ANDONI EGAÑA

ANGEL MARI PEÑAGARIKANO

Maiatzaren 20an goizeko 12etan
Campillo kiroldegian

TXONTXONGILOAK

Maiatzaren 19an arratsko 6 t'erditan
Iparralde Gizarte etxean

ASTE KULTURALA

IPUINALDIK
KALE ANTZERKIA

Judimendi Gizarte etxea

sukalde txokotik

EGIN! • SUKALDE TXOKOTIK • ON EGIN! • SUKALDE



Hirurak: Amaia eta Teresa

JATETXE HONEK "HIRURAK" IZENA DU,
ETA, ZUEK, BERRIZ, BI ZARETE, ZER
DELA ETA?

Azalpena oso erraza da. Orain arte hiru
lagun izan gara jatetxean: Amaia,
Teresa eta Marian. Lehengo hilabetean
Marian joan zen bi seme zituelako, eta
oso nekeza zitzaion haurrak eta
jaketxekoa batera eramatea. Hala ere,
Hirurak jatetxeak izen berberarekin
jarraituko du.

JATETXE GUZTIEK BEZALAXE, ZUEK ERE
PLATER BEREZIRIK EDUKIKO DUZUE.

Dudarik gabe, arrainetan, legatza da
erregina gure jatetxean. Legatzaz
egindako plateren artean, hauxe da
ospetsuena gurean: "Legatza hirurak".
Oso plater goxoa da, plantzan egiten
dugu txipiroien saltsarekin. Haragietan,
solomiloa da gomendagarriena.
Adibidez, "Solomilo Normandiako
erara" primerako platera da, berezi
samarra delako; txipiroi saltsaz eta
baratzuri freskoez egiten dugu. AIZU
AMAIA, LIGATU NAHI IZANEZ GERO, ZER
ESKATUKO ZENUKE AFALTZEKO
JATETXE HONETAN?

Hasteko, gazta eta pateak eskatuko
nituzke. Edateko, berriz, Errioxako ardo
on bat. Jarraian, errebuelto bat piper eta
makalauena; bigarrenarako, arrain bat:

"Salmon a la papillot", oso goxo
baitago; eta, postrerako, irlandarra ala
eskoziarra.

INOIZ JAN AL DUZUE PIZZERIA BATEAN?

Bai, nik jan egin dut, etxean ezer
jatekorik izan ez dudanean. Hala ere,
txerrikeria bat da. Moda bat besterik ez
da, beste moda batzuk bezalakoa.

ZER NAHIAGO DUZUE, AMAK
PRESTATZEN DITUEN PLATERAK ALA
ZUENAK?

Zaila da hori erantzuten, zeren amarena
eta gurea bi sukaldaritza mota guztiz
desberdinak baitira. Dena den, guk oso
ondo jaten dugu hemen. Zer esango ba!

UDAREN ATARIAN GAUDELA,
SUKALDEAN IHARDUTEA GOGORRAGO
IZANGO AL DA?

Bai, egia da, lapikoen artean ibiltzea
gogorragoa da urte sasoi honetan.
Baina, beno, ohituta gaude. Gainera,
jendeak ez du zure lana batera
eskertzen. Hona etortzen dira, jan egiten
dute eta gero ospa. Baina, azken batean,
gauza bera gertatzen da etxean. Amak,
beharbada, bi ordu egin ditu zer janari
prestatu pentsatzen eta inork ez dio lan
hori eskertzen. Dena den, inoiz, baten
batek esaten dizu zein goxo dagoen
janaria.

Karlos Fdz de Betoño

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2errikoia

★
IZ
TABERNA
R
A
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin


ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatura - Zaldiaran • GASTEIZ

BAHIKETA!



...BAINO ETORTZE AGINTEN DUGUNEAN EZ DUZU KASURIK EGITEN ETA GAUZA BAT JAKIN BEHAR DUZU:



ZURE AZKEN ABENTURAK KALITATERIK EZ DUTKATE. HORRELA JARRAITZEN BADUZU, ALDIZKARITIK KANPO GERATUKO ZARA.



AREN AKTOREA NAIZ. KALITATEA NAHI BADUZUE, MARRAZKILARIARI OBETO ORDAINDU...

BALITEKE ARRAZOLA EDUKITZE. DIRURIK EZ DAGO, BAINO GURE SIKARIEK MARRAZKILARIA MEHATXATUKO DUT, EA HAU KORPON-TZEN DUGU.



BENO, BARKATUKO DUZU, BAINO...



LASAI, BADAKIT LANA GOGORRA DELA TA...


ORDUAN... IKUSI ARTZ BA...

EZ DUTE BEHIN ERE IKASIKO! ZENBAT OGITARTEKO ATERATUKO DUT ORDULARIAREN TRUKE?





Puy Lamo . Patxi Martínez de Albéniz . Ane Anitua . Estanis Agirre . José Ignacio Ruiz de Larramendi . Ainhoa Mauri
Julián Asurmendi . Eusebio Babaze . Imanol Barrutia . Rafael Larreina . María Carrera . Andrés Ruiz de Gauna



Gasteizen alde zuzen eta indartsu

Alderdi abertzale, demokrazia- eta aurrerakoa den Euzko Alkartasunak 2010. urteko Gasteizko gizon eta emakumeek gozatu behar duten hiri-eredu berria martxan jarri nahi du. Horretarako behar beharrezkoa da JARDUERA BERRI BAT zabaltzea udal-gestio mailan, herritarren hitzak entzunez eta beraien partaidetza zuzpertuz. Gasteizetik dugun gure erantzukizuneko konpromezua hauxe izango da:

- Premiazko Etxebizitzan-Plan bat egitea, ez bakarrik lur-zoru eraikigarria eskainiz etxebizitzaren prezioak jeitxi daitezkeen, baizik eta beste erakundeekin hitarmenak eginez, behar handieneko gizarte-multzoek etxebizitza duinak beraganatu ahal izan ditzaten errazteko.
- Hiriko auzo guztien hobekuntzarako araubidezko planak lantzea. Erdi Aroko hiriguneko berrikuntza-lanak bizkortzea. Hiri-eragozpenak saihestea, tren-bidea lurperatzea.
- Herritarrentzako garraioa arinki, maiz eta doan. Trafikoa Arintzeko Plana.
- Gasteiz bultzatzea Europako Garraio Konbinatuko Sarearen gune nabarmenatarikoa izan dadin. Forondako aireportua eta Gasteizko Garraio Zentrua indartzea.
- Gizarte-Ongizate arloko eskaera berriei arreta ematea, adineko pertsonen bereziki.
- Auzoetako Udal-Bulegoak sortzea eta Auzo-alkateak jartzea.
- Kutsadura eta zarata murriztea. Ingurugiroaren kalitatea eta hiriko paisaiak hobetzea. Udalerriko alderdi naturalak babestea eta dagoeneko ditugun berdeguneak hobeto aprobetxatzea.
- Enplegua Sustatzeko eta Lanbide-Heziketarako politika berria.
- Ikus-Entzuteko Industria Kulturalaren aldeko Plan Estrategiko bat lantzea eta Gasteiz Europako zinemaren hiriburua bilakatzea.
- Kulturagintza bultzatzea, Gazteei laguntzea, tolerantzia areagotzea eta ba-kearekiko kultura zabaltzea.

Erantzukizuna Responsabilidad



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



**Ondokoetan badago euskaraz
dakien langilerik**

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	

